EGUNA

JEL

18 urtetik 45'artekuak euren agiriak atara biar ditue aste onetan.

Lgo. urtia | 40'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 16'gna. astartea | 15 eunen

España "barrirantz"

Gauzak eratsu ta baketsu ipiñi ta aberriaren eskubideak zaindu

Orra paxisten ames gordiña, gudaletxietara biurtu daitek ezanean egin nai leukiena, Queipo'k diñonez.-Beste izparrak.

Igandez, guda-oñetan ziar ibili ginizalewik, euren biarkuna bete ondoren atsedenduten aurkitu geban gure gudari taldetxu au, eta guk, argazki tramankulutxuban sartu euren irudiak, eta onaxe ekari gebazan.

QUEIPO DE LLANO, ANDALUZIA'KO BURU

Salamanca.—Falange Española, paxista alderdiak, Andaluzia'ko buru nagusi Queipo de Llano izentau dan.

Onek azalpen batzuk egin ditu. España barria eratutea zala alderdi oren lanbide bakarra, esan dan. Gauzak eratsu ta baketsu ipiñi, ta aberiaren eskubide ta jokaera zaindu. Ora gudaroste "nazionalista" españarak guda zindo au garaitzaz amaituta gudaletxietara biurtu ondoren egingo daben lana.

Izpar au aleman iratiz jaso dogu.

GUDARI ZAREN BATZARA

Berlin.—Gerateko gudari zaren batzarerako ainbat estadutako ordezkariak eldu dira.

Inglatera ta Frantzia'ko ordezkariok be eldu dira, ta gudalburu ta soldau-talde batek itxaron dautse geldokian.

Sende pilak lagundu eutsen euren ostaturaño.

DOIPURUA GEXO SAMAR

Vaticano.—Aita Santua asko bizkortu da. Gaba oso bare igazi dau.

Arantzadi'tar Ingartzi

Ostendu da betiko ainbat urtean, Jel, gure elburu maiterantza lor eta nekez daroagun oñazezko bidean, gure gogoak adorez sendatu eta argitzen ebazan yakitun apala.

Agortu da betiko gure mendien arayetatik urten daroyen ituri gozo ta osasunkor antzera euzko-endaren arayetatik urtendako yakituriz gure gogo egarituak asetzen ebazan ituri gardena.

Apal, ixil, garbi ta azke ilda, adorez bixiz dautzala bere aizkide maite Sabin gure Irakasleagaz batean, yagi eban ikurin maiteari.

Etzan txalo ta goralben zalea. Ondo ekian itufien apainkeri ta arotasunak ezirala bearekoak uraren garbitasuna baño. Argia eban maite eta ez kresaluaren apainkeria.

Bergeita bost urtean alikatu ditu gure gogo abertzaleak ainbat idazkai sakon ta bere bizitza garbi ta apala gaz.

Zirauskunagaz bat-batean bizi izan zan dan-dana opaurik aberiari.

Kistar zindoa. Goizpargiaren yaratzale lastandua. Noz nai eta nun nai yagizan bere idazkor zofotza gure arerio eztaldu ta agirikoen aurka naita gorenengo malakoak izan.

Egi ta eskubidea; ikur bi oneik ziran beretzat benetan men gariak.

Etorkizuna Jaungoiko eskuetan lagata azartasunez bete eban beti bere bearkuna.

Euzkel-zalea. Egun gitxi igaro dira esan eustala norañoko poza artu eban EGUNA gure izparingi euzkeldunaa lenengoz eskuratu ebanean.

"Poz aundia artu neban-ziraustan Araudi edo Estatutoa lortzean, **baña andiagoa izan da neretzat EGUNA gure izparingi begikoan yayot-eguna.**

"Euzkerea, euzkerea dogu endarean izate eta gogoa, eta gogoak gorputza lagatzean berjala usteltzen da gorputza. Euzkerea bizi dan artean biziko da bakarik gure enda. Alperik beste lan gustiak euzkeria sendatzen ezpadogu eurakin bat-batean."

Euzko-txiro lotsoran alde uri onetan dogun "Deun Mikel Laguntza,,'ren irazlea zan eta aundia benetan euraentzat, geure anaya txiro ta beartzuentzat, eban maitasuna.

Asko ta aundiak izan dira bere bizitzako atsekabeak bada saritan maite ebazan anayak eurak be ez eben ondo ezautu.

Guda anker eta deunga onen ondorengo deungekeriak zauritu eta eten dabe bere biotz maitekoa.

Ezin eban zinistu ainbesterañokoa izan leikeana gizon deungekeria, eta baliteke Jaungoiko erukitsuak maite-maite eban aberi aldezlaritzat Bere ondotxura eroatea.

¡Ordaindu dayogun abertzaleok etoi beroakin geure zoa bere gogo alde!

¡Gero arte Ingartzi!

PERULARA.

Irezabal gudalburu argia, guadaloro bat ikuskatzen.

ATZERITARAK ESPAÑA AZKATUTEN

Paris.—España'ko gudeaz artikulua dakar "Le Depeche,,'k.

Ingelesak uste dabenez, españar matasan dabiltzan atzeritarak beste era batez jokatuko dabe aurerantzean.

Hitler'ek geldi egingo ei dau, bañan Musolini'k ordea, iñoiz baño gogorago aurera egingo omen dau, españar ego aldean, Franco'ren alde ta erkalaren kontra jardunaz.

Geyago, be, ba-diñoe, bañan, Alemanak bialita Marueko'etatik italiaren alde egin bearra izan bai-dabe, onek, Andaluzia aldean gogor burukatu nai ei-dabe.

Aleman boluntarioak, ordea, Dragon aldera joko ei dabe, au egin nai litzakean bultzakadarako gertu egonaz.

GAUR ERDUKO DA GOERING

Varsovia.—Gaur, azteartez, etortzekoa da Goering alemaniar kenerala.

Dantzin'ko arazoa bein betirako erabakitzeko Goering'ak Polonia'ri egundoko eskiñiak egingo dizkiolakoan dago mundu guztia.

Agintariak arazo ori buruz lotuta dituzte espaiñak.

GEROKOARI BEGIRA

Londres. — Gudaterik izatekotan, umeak zaintzeko, Inglatera'ko Gobernuak jasen aurkako iru motetako aurpegi-irudikerin saio-egiten diardu.

Lenago egin ziran saioak zararekikoak ziran eta bi miloe aurpegi-irudi erabili irudiok. Gaur ontzat artuak dituzte aurpegi irudiok eta oletan egiten diardute.

Gerokoari begira sortutakoak dira asmoak. Iñoiz, zorigaiztoko egun batez, egazkiñak gas-jaurtitzen asiko ba'lira, guztiak aurpegi-irudia aurpegiari lotzea izango luteke lenen-lana.

Egokirik ba'da, egokiak dira aurpegi-irudiok eta guztientzako duakoa.

Gairi dagozkion itzaldiak ematen asi-dira Inglatera'n eta zorigaitza uxatu naiaz, ugari batzen dira entzuleak.

ASPALDIKO AUTUAK

Komunismoari burua zapalduteko Alemani'ren alegiñak ei dira bikañenak

GOEBBELS'EK ORIXE ADIRAZI NAI IZAN DAU

Londres. — Goebbels ministruak egin dauan itzaldiari buruz dira izparingi guztien jardunak.

Barikuan egin eban itzaldian nabarigarienik, gai onexek ei dira. Boltxebikitaren kaltezko jarduneaan, Alemani'k beste iñok baño jatorkiagoa jokatuteko gogo bizia dauala, ta ortan txapeldun izaten ez dautsala iñori utziko. Bera onenik.

Erbeste auziaz, Inglatera'ren jokaereaz esan dituanak aztertu ta azalduten ditue,

¿Labur ala Motz?

"Kopet-Zuri" ixenpetuta aurtemin, izparingi'an itaunau egin eta "motz", "labur" zuten dauanari, ez luze ta ez motz. Ondo bañan erantzun-biar yakola uste dot.

Luze naiz motz bijok be ondo egin bakuak ixan dadikezala, nik esan-barik be bai-dakijala esten dot, eta gaizki egin dakorik, motzena dala be ez edo gura dau. Laburak dirala ta, ondo egindakotzat aurkeztuten dauskuzan eredubak utseziñak eraldubak dira'n dakust, eta arek baxen ondo egin ezkenik ez da oraindik jayo ta ezkero bez.

Ganera, Arek irakatsi ebana, **azaltzeko Doibatza** berberak irasi eban, **eta Doibatzak**, idazkiz batez-be, azalben luziak sarí ta ondo onak eta egokijak egin daruaz.

Beste gauza bat: ¿ondo eralduba dala be, luzeta motz neurtzinok emongo dau? ¿Onetzaz "Kopet-Zuri" utseziña ete da?

BEBEKO.

Galdezka beti ere

Inglaterrak galde egin dio Portugal'eri.-Zer erantzungo ote Portugal'ek?

Londres.—España'ko arazoetan ez sartzea dala-ta, Inglatera'k galdera batzuk egin dizkiola Lisboa'ri, esan dute agintariak. Portugal'en erantzuna oso-osorik nai duala.

Itxuraz, ingalandar arteztzaileak España ta Portugal'eko mugetan jartzea ontzat artzera bartu nai du Inglatera'k Portugal.

Batzar politikoetan diotenez, laister emango du Portugal'ek bere erantzuna galderak ontzat emanaz gaiñera siuf-asko.

GUZURAK GUZURTAUTEN

Londres.—"News Chronicle"ren izparkariak, Valencia'rako bide zear españar Gobernu jatofaren burdiak ibili dabiltzala diño.

Paxistak larí esagoz, erizaleak gogor jarkiten dautselako. Galdutako lekuak barí o eskuratu ditue erizaleak.

Malaga galdu ondoren, egundako kemenez erasoten dabe erizaleak.

AUSTRIARAK, GERMANDARAK OMEN

Viena.—Aldi onan joko antzeko egitadetan ezdala asiko austriar Gobernua, esan dau bere lendakariak.

Ango monarki-zaliei erantzun zeatza emon dautse oar oregaz. Monarkikuak jo ta su dabiltz urduri. Habsburgo'tarak barriren barí bakaulkira eroan nairik egundoko zabalkundea egiñaz.

Monarki aldezko zabalkunde ori, estadu barruko arazu bat izan bear da.

Komunistak erian darabilezan goraberak azaldu zituan gero, ta onei kontuz egiteko, gobernuaren aurkako alderdiei dei egin duatse kanzilerak, aberi-aldezko sail bakarean guztiak alkartu daitezan, asareak alde baten utziaz.

Italia, Hungria ta Alemania'gaz artu emon kutunak izan nai ditu gobernu austriatarak.

Jatori germandara duana austriar eriak barriro aitortu dau; bañan, bere buruaren azkatasun-zala ei da, ordea.

ARGANDA-INGURUETAKO JOALDIAK

Arganda.—Erkaldarak adoretsu jokatu dira ta paxisten joaldiei eutsi dautsoe.

Madrid'tik Valencia'ra duan bitxabala mende artzen dan mendi-tontora artu nai izan dabe areik.

Iru egunen buruan jardun dabe gudaketa sutsuan. Au izkilubizkorak, busilek eta suagalriak ixiltzeka jardun dabe. 14 eiza-egazkin ondorik ekazen 6 egazkin-suagalarik suagatu dabe Arganda. Egazkiñoi 15 erkaldar egazkiñek urten eutsoen Alkaren artean egin eben ekiñaldian paxisten eiza-egazkin bat jausi zan eta beste bat sutan jatxi zan. Egazkiñon-arteko ekiñaldian bala asko eldu ziran efiri bestera, be, ta iru gizaxeme il eta 25 zauritu ziran. Erkaldaren guda-lubaki-onduan jausi zan egazkiña Italia'ko "Limonesi" olan egiña zan.

Madrid inguratu ta gozearen-gozez menderatzeko asmua dabe pazistok. 15 kilometroko-sailena zeregin txarak emoten dautsoez erkaldar suagalariak.

Madril'tik Valenciarako bidea amabi kilometroz erdibituta dago. Diru-txartel berriak paxistarrentzako. Alemania diru-txartel-egille

Tenerife.—Igande-aratzaldeko paxistaren izparak diotenez, Madrid'tik Valencia'rako bidea amabi kilometroz erdibitua dago.

Paxistaren Gobernu'ko diru-txartel ikuraztuen ordez beste batzuk aterako dituzte. Ori ere paxistarengandik jasotako izparak eurak dasate.

Bestetan España'rako diru-txartelak egin oi-dituan Etxeak uko egin eta Alemanja'n diardute egiten.

Arellano'ri urten dautzon saldarra

Abertzaliak.—Eta... ori eztok ezer, atzetik etoriko yatan ariabarra... ¡a bai izango dokala edef a!

Geure arrantzalienganako esku-zabala

Santurtze'ko endore jaunak eskari bat zuzendu dio Arantza'ko Zuzendaritza Nagusiari. Egunoro, goizean lauretan itxasoratu ta arratzeko zortziretan gutxienez etxeratu oi diran arantzale gaixoon aldez egindakoa da eskaria. Sarítan gaiñera itxasoaren asarea-bide, beste kaietara joan bear izaten duten arantzaleon aldez. Santurtze'ko alkateak, kaian janari ta edari -etxea jartzea loftu du Arantzako Zuzendaritza Nagusi esku-zabalagandik.

Orela, egunean bein, besterik ez ba' da ere, gure arantzale gaixoak ontzian bertan jatordu bat egin al izango dute.

Merezi ere ba'dute gure arantzaleak ori ta geiago. Guztion onez, or dabiltz egunero itxas-zabalean, bizitz-arja tentenean dutela ta, bai orixe, ondo merezia dute. Amaikatxu arain ekari digute mutillok!

Laguna, lagun zakidak

Aleman eta italiar artilleru azkar ugari ditue españar paxistak gudontzietan.

Algeciras'en gudontzi aleman eta españar paxistak alkerrekin

Londres.—Ila onen 4'garenekо "The Times" egunkaritik artua:

"Gibraltarren dogun izparkariak bialitako barriak. España paxisten gudontziak, "Canarias", "Baleares" eta "Almirante Cervera" Algeciras aldera eldu ziran, eta bertako kairuean geldi lotu. Eunkaz batean "Koln" kruzeroa eta "Almirante Graf Spee", alemanak biok.

Gero, estadu biotako gudontziak sorkaderuntz batera joan ziran.

Paxista españar eta alemanen gudontziak batera lotuta gelditu dirana, gaurkoa lenengoz.

Franco'ren gudontziak ondo zaindurik dagoz eta artileru italiar eta aleman ikasiak daukez.

Ubao

GURE AGUŔA.—Norentzat geure lenengo itzak? Norentzat gure lenengo aguŕa? Zeuentzat, Ubao'ko gudari trebeak. Paxisten aufkako buŕuketan go-goian iminten dozue gure eŕiko ikuŕiña. Zuen adorea ta zuen eskurzabala ikustean, lotsatu egiten gara gu, Euzkadi ta Ubao' gaitik gitxi, be, gitxi egiten dogunok. Biotz-biotzez ba: ¡Aguf!

GUDA OÑETIK EŔIRA.—Egunotan alai ta zaratatsu egon da gure kalea.

Moltzoka, alde batetik bestera ikusi ixan doguz gure gudarjak; "Padura" gudasaildikoak geyenak.

Atsedena aftuten euki doguz egun batzutan eŕian, gero ostera Bilbo'ko gudalekuetara juateko. Geure poza euren arpegiak baŕiro ikustean!

Juan zinan guztiak etoŕi yakuz. Udiafaga'ko Ama'k yagon daizala beti orain aŕte yagon dauzan letz.

Eztoguz imiñiko aguŕtu doguzanen ixenak. Asko ixan dira ta bat-edo-bat aiztuta itxiko geunke. Guztien ixenak imiñi ezik eztogu gura iñorena imiñi.

GUDARIAL.—Zuekaz poz pozik gagozan aŕen kezka bat ba-daukogu gure biotzean.

Zeanuri'n egon zarienian erderea erabili ta zabaldu egin ei dozue. Euzkeraz eztakixuenak Zeanuri'n euzkerea ikasteko eukidozuen ereti edeŕa galdu dozue.

Zergaitik eztozue ikasten euzkeraz itz egiten?

Orixe ixango ittzake abeŕiaren onerako lanik andena.

Zeuekaz daukazue Ituŕiaga'taf Pantzeska, euzkeltzale sutsua. Beronek lagunduko dautzue poz pozik. Eztok, Pantzeska? Noz edonoz erakutsi biaf dok ire jakintza. Euk gura ba'dok gure gudarjak euzkeraz ikasiko yoek ta Ubao'n makal-makal yaukan euzkerea baŕiro indaŕtuko dok.

Eugan yaukoagu itxaropena Ubao'ko euzkeldunak.

GEXOZAIN BAŔIAK.—Bilbo'ko Gexotegian egin diran ikastaro laburetan (kurtsiloetan) amaika emakume abeftzale gaste egin yakuz gexozain. Danairi gure biotzezko zoriona. Ona emen euren ixenak: Laŕakoetxea'taf Gotzone, Agiŕebazal'daf Miren Koldobike, Ituŕiaga'taf Miren, Ituŕiaga'taf Pozkide. Laŕagoiti'taf Josune, Laŕagoiti'taf Miren Gurutze, Solana'taf Ebe, Elustondo'taf Bingene, Aitz'taf Pelikite eta Aitz'taf Miren.

Paxistak zaurituten ba'auc, be Peli, ba-deukok nok zaindu.

AGURTU.—Urkiola'tik etoŕita, angoa Gezategian gexozain dan Laŕea'tar Miren Itziaŕ'en arpegi polita emen ikusi dogu.

Zubisaŕ

Begoña

Igezi zan igandian, Miren Deunan eleizan, berebiziko eleizkizun edeŕa aunditasunez egin zan afatsaldeko eleizkizunjan.

Aguŕtza, gurutzbia eta, azkenin itzaldi gutsu ta bero bat, Gazteiz'ko kanonigo dan Mentxaka'taf Kepa'k egin da. Oste asko bertaratu zan.

—Igande oŕetan, ainbat begoñataf Bilbao'ratu zan batzuk, Euskaldüna pelota-tokira partiduak eta beste batzuk Euzko - Gastedi'ko aŕetora antzeskia ikustera, "Euzkadi" egazkiñaren alduko jolasketak izandu ziran. Guztiok pozez etxeratu ziran.

—Jaier aufkisten gera auzo ontako Jel Batzokian, gaste gutxi ikusten degu bertan, baña dana da Euzkadi'ko gudá oñetan afkitzen diralako asko ta asko. Jakiun gera ala ta gustia ere talde politak eltzen dirala beŕtara.

Auzo onetan molts edeŕa dala gure eleiz mintzatzen dakienak baña eŕderaz egiten nabaitzen ditut.

—Tamala da ba euzkeraz jakin ta, gasteleraz egitea. Aŕen bada begoñako abeftzaliak egin sazu euzkeraz aufera, eta goguan izan zazu Sabin'en ezana. Euzkera galtzen bada, abeftzaleriz ez dagolako da.

—EGUNA euzko-ingi edo izpaŕingia bat edo beste ikusten det emen, baña beaŕ dau beste ez, goian diodan bezela, bai dira batzuk euzkeraz dakienak eta alegiña egin biaŕ dezute EGUNA irakuŕtzen eta, irakuŕtzian zabaldu zazu bestian aŕtian. ¡Begoñatarak! irakuŕi sazute auferantzian EGUNA.

—Igazi dan astian ainbat, gudarien ikuŕin oneŕtu dira Begoña'ko eleizan, goguan ditut egun gutxin baŕuan oneitu dirala, Koftabaŕia, Iŕintzi eta Laŕazabal nok sei. ¡Au edeŕtasuna! ainbeste euzko-gudari emen ikusten dana!

Zoriona ba gustiori eta, ikuŕin oyek izan dituztela Euzkadi azkatzeko bidea irakutsiko dizutenak.

AIXERIXA.

Mungia

Zorigaiztoko guda onek, ze irakas pide asmintsuak damozkuzan.

Oraintzuraŕte ikusten ixan doguz mutil aldra edeŕak doyazala efeka-afteko landola nagusietara eta gauf ostera, besteŕa ikusten dogu; landola nagusi ofeltatik eundaka notiñak datozala baseŕirantza, eta uste dot, beste sasoi batzuetan legez ez guztiak datozala mjzkeriaren.

Ona emen argiro nun ikusten dan oraintaftian egin jakon baño abegi obia zof dautsagula gure luf-langilloi.

Landola aundijak eta ondo gertauak biaŕekoak ba-dira, neure ustez biaŕekoagoak dira, an lan egiten dabezanan alikatuak.

Aldi negaŕ-gaŕi onetan egia da, gure baseŕitaŕak saltzen dituazan salgai batzuk saneuŕi ikeragaŕiak dituazala; ba ez dot ondo aurkituten, amabiko bat aŕautza zortzi eta amaŕ laufleko ordaindutia; oloak bikoti bat, berogetamaŕ laufleko; indaba goŕian imjlauna, ogei eta ogetabost laufleko. Oneik guztiok txaŕto, bai, txaŕto aurkitzen dodaz baña, au eiten dabenak ez uste ixan lugin guztiak dirala, ba lugiñen aftian batez be Bizkaya'ko lugiñak asko dira, saldu egiten dabena baño, erosi biaŕ dabena ask geiago dabenak. Eta era onetara, zenbat eta geyago eroşi biaŕ, eta galpide andiagoak dituzala.

ERIOTZAK. — Aspaldijan gexorik egon-ta egubenian il zan Bilbao'taf Klaudio. Goyan bego.

AMAYA.

Euzkadi

"Antipatrja". Olantxe ixenpurututen dau lenengo zerendako idazlana.

Gipuzkoa'n aginpidia dauken paxiotaŕak ikusten dauz, España'ren gaiskatzaliak dirala diñuen españaf "abeftzaliak" (?). Eta aldearetatik Bizkai'ra, guda-oñerik-guda oin afiskurik aundijenetatik oñez eta laguntza barik bidaltzen dabezan emakume ta umetxu efukafijel begira jafijaz, olantxe diño:

"Oŕelk españaf "abeftzaliak" dirala diñuen paxiotaŕoik, eurak nabaitzen daben "abertzale"-erea agertuten ez daben gustijen ondamendija loftuten dabiltz."

Españaf "abeftzaliak" dirala diñuen paxiotaŕak euzko - abeftzalien aufka agertuten daben neuŕi balio gofotua uartutian esan leikena, auxe dala diño:

"Abeftzaletasun bi oŕetatik bata, guzuŕezkua dala. Eta guzuŕezko abeftzaletasun ori, paxiotaŕena da, egizko abeftzaletasunaren aurka, euzko-abeftzaletasunaren kaltez atzeritafik-atzeffiafenak lagun aftuta dabilalako."

Abeŕi-ixena, gurasuekandik datoruna dala, esaten dau, asabakandik, abenda-odoletik datoŕena Euzkotaŕena, euzkotaŕen beŕija, orixe berberori da, ba: euzko-abendea, euzko-izkuntzea, euzko-gogua ta euzko-oturaen kabi berezija.

Beraz, gu, euzkotaŕok, abeŕijoren semiak gara, abeftzaljak. Eurak, ostera, españaf "abeftzale" agertu guran dabiltzan nasteru oŕetik, abeŕi - areyuak dira.

"Euzkadi'ren bizitzea gara. Eurak, erijotzea."

"Abeŕija gara. Eurak, abeŕijaren izuntzija."

"Tierra Vasca"

"Hay que vivir para la guerra" izenpurututen dau lenengo idazlana.

Gudearentzat bizi biaf garala diño, bizi garan gudaldi au estuba be estuba dala esateko.

Esturaldi onetatik urtetako bide bat ikusten dau; eŕi-aldezle gustijen benetako batasuna.

Eŕi-aldezlien uste ta ames bakaŕa be, auxe ixan biaf ei-da: gudea irabazi. Eta ori geure eskubetan ei-dago: gura izatian.

Gudeaz aztuta, bakotza bakotxaren igurura bakaŕik begiratubaz geure gurarjtxubak soil-soilik zaintzen alegindute ba-gara, baña, gurendeagandik urundubaz juango ei-gara.

Paxiotaŕak gure aufka egin al-dabezan gajztakeri gustijak egiten diñarduben aftian; gure emakumiak iraindu, umetxubak jaurti ta gixa-eskubide gustijak ostikopetuten dezagoyoen aftian gu bananduta egotia, gudeari yaokan lotsa ta itzalez begiratutia ez ei-da.

Gauf iñoz baño alkaŕtubago bixi biaf ei-gara. Eta aolan, aldi gitxi baŕu, ¡Gora Euzkadi! ta ¡Gora Eŕkala!, bijak batera esango ei-doguz.

"La Gaceta del Norte"

Madrid'ko guda-oñetako izpaŕak emoten dauz. Guda-oin aretan era gustijetako gudarijak aurkitzen dirala diño: ukabilkarijak, antzezlarijak eta abaf.

Ukabilkarijotatik bat, España'n txapeldun ixandako Igiesias'taf Emeli ei-da.

Ia, an, zer egiten daben ikaundu dautsoenian, Emili'k erantzun dautsena, auxe ixan ei-da: eŕija aldeztuten diñardubala.

Beste ukabilkari bat be an ikusi ixan eidabe: Martinez ukabilkarija. Eta au be, bestia jez, eŕija aldeztutiaŕen guda-oñeratu ei-da.

Beraz, eŕi-aldezlia dana, ukabilkarija dala naiz antzezlarija ixan, afiskuban aurkitzen dan eŕijak detuten dautsanian, eŕi-deyari aŕetaz erantzungo dautsa, ta bera aldeztuten juan.

"El Liberal"

"El peligro de izquierda y peligro de derecha" izenpurututen dau lenengo zerendako idazlana.

Eskefetik eta eskumatik ikusten dauan afisku ori, baña, argiasun gitxigaz agertuten dau.

Idaslan onen egiliari, idazten dauzan idazlanetan argi geyago iminten ez ba-dau, idazten dauan gustija ilunbiak geratuko yako.

Argija edatu gura danian, ba, laño-porik-laño pe ibili barik, ganik - gane ibili biaf da. Leŕunk-leŕo idatzi barik, leŕo gitxitan argi asko erakusten. Orbelik-orbel; lastorik-lasto ibili barik, garaunak agertuten. Bestelan, argi geyago barik gau ilunian urtetan dan idazlla, bidian galduko da. Eta bidian galtzeko afisku ori, argi barik urtetan dan gustijetan ixango dau: eskefik-eskefenera juaten dala naiz eskumarik eskumaenera zuzendu, argi barik dabilanarentzat, zuzenduten dan toki gustijetan ixango da afiskuba. ¡Bai bein..!

"Euzkadi Roja"

..Y con el mando unico, un pensamiento unico tambien: guerrear", olantxe ixenpurututen dau lenengo zerendako idazlana.

"Aginpide bat, burubi da bat: gudatu". Azkenengo jazoerunak irakatsi azo dautsen oyua da ai.

Malaga abeŕi-areyuen eskubetan jausten ikustiak, orain-aŕte eftsita egon ixan diran betazal asko edegi ixan dauz, eta begijetako argija, egija ikusten imiñi.

Sasipeko egaizkada laburen areyo agertuten da, ezpal-era gustijen etsai. Guda-aufla ta atzia, goŕija ta zurija; euzkotaŕa eta españaŕa, guda oñetan, paxiotaŕen areyuak ei-dira. Beraz, gustijon areyua dan paxiotaŕai oldaŕtuteko, gustijok batu biaf ei-gara, aginpide baten azpijan batu be.

"¡Zutunik guda-atzia! ¡Zutunik guda-aufla! ¿Gurendea gura dogu?—itanduten dau—. ¡Bere biia, aufera!"

"El Noticiero Bilbaino'

Gipuzkoa ta Araba'ko guda-izpaŕak emoten dauz. Eta izpaŕotan dakaf eŕi-aldezliak Kalamua'ra egin ixan daben osterea be.

Eŕi-aldezliak Kalamua'ra egin ixan eben osteran, beste aldekuak an euki ebezan suaga, gudorni ta izidiubak ekaŕi ixan ei-dabez.

Eta gure mutillak, areyuai aftutako guda-zama gusti oŕaz, osasuntsu itxuli ei-ziran. Okeŕik txikijenjk be ez ei-yaken jazo.

Eta egun gustijetako otureari jafatubaz, beste aldeko kabo bi onuntz etoŕi ei-ziran: bata Elorio'ko guda-oñatik. Eta bestia, Ubidea'kotjk.

Gudari bi oneik euren gurariz eŕi ixan ba-ziran be, beste batzuk, paxiotaŕ agintarijak indaŕ-bidez bidalduta etoŕi zirala diño. Azkenengo oneik, baña, ez ei-dira gudarijak, emakume ta ume efukafijak baño. Abeŕi ez sendi bako emakume efukafijoik, ain zuzen be, geure abeŕkidiak, geure odolkidiak ei-dira: gipuzkoaŕak. Eta Gipuzkoa'n aginpidia dauken paxiotaŕak, katolikuak (?) eta abeftzaliak dirala diñuen aŕen be, gipuzkoaŕ emakume efukafijak euren etxietatik jaurti, egin ixan dabez, ezetariko efuki barik jaurti be: basatijak bai-ljtzan... Oŕa, oŕ, paxiotaŕ katolikuen antzikuŕa... Begiratu dagigun, ta darabilen katoliku-erea, ikusi ta aztertu dagigun...

Andik eta emendik

Alemaniari dirutan lagunduteko asmoa.-Ingeles errege ta erreginña barria, txalotuak.-"New York Herald Tribune"n begietan, Madrid eta Malaga gertakizunak. - Aurtengo Paris'ko erakusketara amerikarrei dei. - Alta Saboya'n egazkin ugari maniobretan. - Beste izparrak.

JAI OSPATSUAK

Mosku.—Ŕaŕ East'ko Volochayeuka guda-esiak apuŕtu ebezaneko amabosgaŕen urteuŕena ospatuteko otsalaren 12'an egin diran Khabarous'k jaiak Lateŕi guztian ospatu dira. Volochayeuka'n batu ziran ola-batzetako ta nekazarien ordezkariak, lugiñak, matxiñada aldiko gudariak. Ildako gudarien ilobien mitin bat egin ostean, bazaŕa egin eben eta orduko gudariak euron eritxiak azaldu ebezan. Erestaldia izan zan jaion-buruan.

GUDA AŔIZKURIK EZ EI-DAU ALDENDU

Mosku. — "Pravda" aldizkingi entzutetsuak Ruciman Ingelateŕa'ko ordezkariak Washington'era egin dauan ostereari buruz auxe dirausku: Londres'en Europa'ko guda-aŕizkua aldenduko ebala uste zanaŕen, Ruciman'ek uste oŕeik ez dauzala aiurtatu edo egiztatu.

Washington'en erabili daben autua Alemani'ri ingelataŕen eta iparaf amerikaŕen aftean 500 miloe laurleko emotea izan da.

INGELATEŔA'KO IZPAŔAK

Londres. — Bakaldun egin eben ezkero atzo lenengoz agertu dira alkaŕekin eŕegea ta eŕegiña. East End jauregira osterean. Kaleak beteta egozan eta ikusleok euron poza ta menpekotasuna adieraza dautsoe; eŕege eŕegiñok txalotuak eta goratuak izan dira.

Eŕtzaiñak bide ertzean ipiñi eben esia apuŕtu ta bakaldunon belbila geratu eben. Eŕegea jatsi zan eta eŕegearen zaintzale bereziak inguruak ikusi ebezan; aftietan eŕegiña zutunik egon zan egalean. Ainbat kosta dau jauregi baŕia ikusi ta eŕi jauregi aretan erestaldia entzun eben.

500 umek ume-batzen ordez ondo etoŕja egin eutsen bakaldunoi.

MADRID'GO ERASOAK

Madrid. — Zaintza Batzordeak diñonez Jarama ibai inguruan egundo baiño zitalago ta gogoŕago diñarduе. Zaldizko moruen eta alemandaf-taldeen joaldiei eutsi ostean, eŕkaldaŕak egazkiñen laguntasunez joaldiak asi ebezan eta Madrid'tik Valencia'rako bide ondoan eta Monte Pajares'en toki gaŕantzitsuak aftu dabez.

"NEW YORK HERALD TRIBUNE"-REN IZPAŔAK

Malaga.—Gau ta egun diñardue euren arazuetan Guda Epaikariak. Erailketak eta euren aurka zerbait egin dabenen auziak aztertzen. Erailketa edo olako zalakuntzaren bat aurka daben guztiak eriotzarekin zigortzen dabez ta gitxik lortzen dabe azkerpena. "Herald Tribune"ko izpaŕlariak amalau txapel-okeŕen auzia ikusi eban. Txapel okeŕok eskumataŕen biztuk zalatu ei eutsezan Frente Popular'kuei ta eskumataŕok erail egin ei ebezan. Bederatzi txapel okeŕ eriotzagaz zigortua ei-'abez, lau betiko mofoilopean saftu, ta bere alde abade bat izan ebana sei urterako atxilotu epaiaren aginduz. Lege-arauz ixuraz egin zan epaioi. Salatuok euron aldezleak izan ebezan, baita euron aldeko testigu edo lakukoak, be, ta euron alde eŕukia eskatu nai ebenei be, eskabidea egiten laketu yakuen. Epaikaritzan iru gudari-epaikari ta gudontzi agintari bat izan ziran. Amalaurak batera epaiţu ebezan aŕen, epaikariak bakotxaren gora berak ondo aztertu ebezan.

Madrid'go goraberei buruz era askotako izpaŕak edatu dira munduan. Madrid laŕi darakuskuenak guzuŕezkoak dira. Madrid'en esaten diran nasterik ez dago. Jarnarjak ba dagoz ta Valencia'tik eta España'ko beste lufalde batzuetatik egunoro eltzen dira jakiz betetako belbilak. Madrid'en dauzanen eŕuki ta pozkide jzatea ondo da berez, baiña eŕuki esaten diranak bide ezin izan daike, guzuŕak esaten dira-a. Madrid'en dagozan guda ikusleak Alemania'ko ta Italia'ko laguntasun beŕiekin Franco Madrid'en saŕtu daikela diñue, gu darik irabazi ez baiña. Franco'ren aldekoak baiña eŕi aldezliak eskuaŕte aundiagoa dauke euki, baiña Hitler'ek eta Mussolini'k baiño geiagoŕik ez.

GAUZEN SANEUŔIAK EZ JA ZOTEKO

Paris.—Alsazia ta Lorena'ko autua aztertu dabe atzoko batzaŕean Gobernukoak. Autuoi lufalde oetako ikastaruetan egin gura duezan aldakuntzak doguz. Gobernua ta aldunak aftuemonetan diñarduc.

Saneuŕiak euren sortean iraunerazo ta gauza batzuen saneuŕiak geitutzea geben tzeko bideak arakatu ebezan gero.

1937'gaŕenengo Erakusketara amerikarei Gobernuak berak dei egiteko asmua aftu dau, dei ori egin ezkero 10.000 ikusle Paris'eratu daikezala-ta.

INGELEZ GUDAROSTEAZ

Londres.—Eŕi Zainketa'ren asmuak zelan duazen erakutsiko dausan liburu zuria asteaŕtean argitalduko dau Gobernuak.

Agiri oŕetan datoŕen urterako dabezan asmuak azalduko dabez. Asmuok egi biurtzeko Gobernuak beaŕ dauzan 400 miloe libra emotea zeiñen beaŕekua dau eta Gobernua'ri eskubide osoak dirutza oŕekin egin beaf diranak egiteko emotea, be, ondo dala azalduko dau idazti oŕek.

Egazkin, guda itxasontzi taldeen eta lufezko guda-indaŕen baŕi emongo dau idazti edo liburu oŕek.

EGAZKIN UGARI

Paris. — Alta Saboya'n neguko maniobrak asi dira. Bestetan ez bezela, oraingoan egazkin saldo ugaria ere ekiñaldietan arituko da.

ERUSITAŔ GOBERNUAREN ARERIOA

Londres. — G. P. U.'ko buru izanikoa atxilotu dabela diño "Daily Telegraph" egunerokoak.

Stalin'en otsein bildurgaŕionetarikoa da, ta Gobernuaren aufez dagon talde eskumakoeri lagunduten ari dala ta, salatu dabe.

Gobernua'ren kontra lugiñak egin izan dituzten zapaŕadak zeatz meatz azalduten izan ei dautsez aren etsaiei.

FRANCOA'REN UŔE BALIOA

Londres.—Uŕe oñaŕiz lasteŕ izentauko ei dabe Frantze'ko diruaren aldiña, oraingo eragozpenak garaitu ondoren.

Uŕearen erosi ta saltze neuŕiak berentzat zein diran egokiak lasteŕ argitalduko dau Frantze'ko Diruetxeak.

"Bizkai'ko itxasuan"

Euskija datoŕ mendiŕik
Argi ludi an imuntzen.
Bere printzakaz goi-goŕik
Itxas oseŕtzak goŕitzen.

Asaunka dua sakoŕa
Itxaso iñak ebaitzen,
Baŕurantz beti aufera
Aŕanak gogoz aftuten.

Itxaso ozkiŕi-axiak
Bete daizula axontzi
Ariña. Ekaitz etoyak
Bakian itxi samuŕki.

Adanau elzu pozkiro,
Gentzake dabil gogua
Urdiñan gura dau gero
Gozaftu azke berak-ta.

Uraren otsan, ametsak
—Eŕefak gustiz onexek—
Asmatzen difu gogayak
Irudimenen bigukaki.

Goguak, gora baŕfubaz
Odeyei, anes-egiŕen
Dau bere bijotz-etxiaz
Begoña Neskutz Ama'kin.

GOXABARAN.

Ildakoai gorasarreka

Hitler eta Mussolinik bureztun eder bana bialdu

Bucarest.—Moztaŕ eta Martin, españaf paxistaŕekin batera guda-oñean il diran osalarien gorputzai gorasaŕeka diaŕdute.

Atzo iltokian sekulako gorasaŕea egin zieten. Bi españaf ikuŕin zut ildakoen aurean. Moztaŕen gorputza balak zulatutako ta odolez gofitutako ikuŕin baten batuta.

Hitler eta Mussolini bureztun eder bana bialdu zuten ilobi-gaiñerako.

Gorbeya menditik

Aspaldijon emen gara Landaŕaga len Padura zan Gudaltzalako euzko-gudarijak.

Aldi luzetxua daruagu emengo bakaŕlekubetan. Len Elgeta'ko guda-oñean gengozan, eta berton ogeta bat egun egin ostei, atsedena etxian igaro geban. Gorbeya'n daukagun betebiaŕa ezta ez, ufik emon be, Elgeta'n geukana. An, daunbadotsa ugari eta odolkoŕa ixan zan. Otza, eurija ta abaŕ be gure lagun ilunak ziran, baña ez emen leporatuten yakun laña.

Mendi ikaragaŕi onetan ba-zan eta ba-da negu-igalija gau ta egun. Axe zofotza, txingoŕa, eurija, lañabarea, eta orain ostera negubaren zamarik polifena: edufajuan dirazen lau-bost egunetan eduf-zuri ikuskaŕija mara-mara jausi zan, soru gustija belaunetaragiñoko zapiño zuri ta lodijagaz bezarkatuaz. ¡A ze gauza edeŕa dan gure begijok ikusten daben ikuspegi zoragaŕija! Pago bilosak, euren abaŕ sendoak edufez zamauta luferantz okertuten dabez, Goikua'ri gurtu antzo. Pagoduyak, trokaŕoak, aldamiñak, bide-zioŕak, eŕekatxoak, artza-zuloak atxetak, mendi ontako biztanle begiko ta agurgaŕijak, euren janzki poliŕak, lorak aña maitagaŕi, erakusten dauskuz afoturik eta kokoldurik otsagaŕik. Ufunean ardi-taldean be geŕiaŕak eta zamatik dangiliz daroyen aŕan-soñu ilun eta mudurijak entzuten doguz. Gañera belak, sayak eta enparauko egaztijak oyu ankeŕa bialtzen dausku pitian-pitian. Onelan, ikuspegijak alai-antza eukin aŕen, laguntasun dauskan eres-ifunaz, nastau bakana sortzen dau. Gorbei-mendi onek ikuspegi ta entzungaŕi dauzan biztanle ta soñu basatijan antzera ikusten da gauf gure Abeŕija. Batetik iluntasuna, euzko-semiak galtzen dabezan bixijak; bestetik, alaifasuna, lasteŕ, gurenda-bidez loftuko dogun Abeŕijaren azkatasuna-gatik.

Emen garan euzko-gudarijak basauritaf, paduraraf, ugaotaf, zeberjotaf, zaratamotaf eta zolotaŕak gara. Kementasuna ta adoria ugarija da emen gaste gustijen aftean. Murgia goitxuan dagon "Beŕetin" menditxuan bere egon giñazan, baña galuf aretan esin egon liteke otzaren efuz. Igaziiako eguaztan uf ufean entzuten ziran araba-zelayako daunbadots negaŕgaŕijak. Gorbei-mendi tontoŕeko gurutz-ezaugaŕitik ostera Gazteiz'eraño dana ikusten da. Guda-bufukaldijak bere. Legutiano, Zarate ta beste arabaŕ-eŕitxo asko ikusten dira zelaikada edeŕ onetan. Baita Otxandijo, Urkiola, Markiñez eta Orduña'ko atzak. ¿Nos ikusiko ete dogu eŕi gustijetan aldibeteko jayak eta bixitza bake-oleŕkijan?

* * *

Muniategi'taf Sabin oleŕkari zintzo eta zakonak emen dau adizkide on bat. Bere aldez gorantzijak bialtzen dautsedaz Sabin euzkaltzale txalogaŕijari, eta erkaŕtuko neuke zertxobflait idatziko ba-leu izpaŕingi onen biŕaftez. Aitatuko zure adizkidea, Sabin anaya, Zabala'taf Nikola murtil gaste mundakaŕa da, zeugaz Elorio'ko Ane Deunaren Gudaletxian erabatera egona. Bijon adizkide dan Zabal'k diñoste zuri esateko ia zuk idatziriko idaztijen bat bialdu baleuzkizu ona, Landaŕaga Gudaltzala'na, Igiriñao, Gorlea, diŕez la bere ta nere zuzenbideak. Aureŕtxik eskaŕik asko eta agur.

Gurutbaltaf Kepa

Gure gexotetxiak



Sendi Donemea daritzo gexotetxe onі. Derio'n gaŕkitzen da, eta Basurto'ko gexotegiaŕ oŕaxe erugan, oi ildabez gexua aŕi nauten gaŕenak, gexo-ondoŕena egok iago igazi dagen.

ATZERRIKO IZPARRAK

Españar Gobernu jatorraren eskubideak aintzat artu bear dira

"Daily Herald" egunkariak orixe diñotse prantzetan eta ingeles gobernuai.-Cerro de los Angeles'en preso artutakoen auzia.-Italiar konsula Malaga'ko jaun eta jabe.-Alemanei kanposantua eskeñi dautse Zaragoza'ko udalak.-Espiak ugari Madrid eta Barcelona'n.-Izparkari ingeles bat, paxistak zemaituta.-Honduras'eko matxiñada. barriak-Beste izpar batzuk.

"DAILY HERALD" EŔIZALIEN ALDE

Londres. — Idazlan bat argitaldu dau "Daily Herald" egunkariak eta gogoŕ'i egiña da. Españaŕ Gobernu jatoŕak bere dituan eskubideak zapaldu egin dautsez Gobernu ingeles eta pantzesak; Gobernu onek ostera, eskubide oŕek baŕ'ren baŕi aintzat artu beaŕ dautsez, beaŕ dauan eta nai dituan armak erosteko eskubidea emonaz.

Ez saŕtzeko batzordeari emoniko itza, estadu paxista'i auzi egin dabena, danak dakie.

Oŕezkero, españaŕ Gobernu jatofari Inglaterŕa nai Frantze'n gura dituan armak erosteko eskubidea ezin leikio iñok uka, matxiñada baltz au lenbaile amaitu dagian, .

Prantzetaŕ eŕiari ots egiten dautsa, españaŕ eŕiaren alboan eta aldez jokatu dagiala eskatuaz.

MILAK ERIOTZAK, MALAGA'N

Madrid. — Atzefiko izpaŕingien Madrid'eko izpaŕkariak, prantzes, ingeles eta amerikaŕak, Frantze'ko Gobernu buruari uŕu tidazki au biali dautša:

"Malaga'n, paxistak, ainbat eta ainbat lagun il dituela jakin dogu. Madrid'en dagozan atzeŕitaŕ izpaŕkariek Gizadiaren izenez, eŕubakoen odol geyago isuri ez dedin, alegiñak egin dagizuzala eskatzen dautue."

ITALIAR ORDEZKARIA, MALAGA'KO JAUNTXU

Valencia.—Malaga uŕia eizaleak eukenean, italiaŕ ordezkariak alde egin eban andik. Oraingoan, italiaŕ soldaduak uri artara saŕtu diranean, kontsul orixe, lengoekin saŕtu ei da bertara, eta jaun eta jabe bai'litzan aŕi omen da.

Ogetamasei guda-epaikaritza ditue, eta jendea piloka ilten dabe.

ALEMANEN ILDEGIA ZARAGOZA'N

Valencia.—"Heraldo de Aragon" egunkariak agertu dauanez, Zaragoza'ko udalak aurtemein erabagi au aŕtu ei eban.

Torrero ileŕian, kanposantuan, alemanai luralde bat eskeñi dautse dubarik, eurendakoŕi ilak bertan obiratu dagiezan. Leku oŕi ordea, medaŕa ta txikia e la.

Valencia'ko izpaŕingiak emon dabe baŕi oŕi. Alemanak zenbateraño izango diran, eta noraginño eldu diran, galdetuten dabe.

Eta are geyago, Zaragoza uŕia zaindu ten odolaz ta biziaz bikainki aŕi diran alemanei egiñiko eŕegalua il obiak egitea, egoki eza ta ikaragaŕia dala, diñoe.

EMAKUME ESPIA BAT

Barcelona.—Emakume txairo ta aspaiñ bat atxilotu dabe. Frantzetaŕa da, antza, eta espiatzat etsi dabe.

Matxiñada au sortu ebenèn aŕteko aŕain andi baten maite laguna ei da.

Paxista andi oŕi, matxiñada au asi zanean, bestekaldera igesi joan zan, eta emakume oŕi izpiazgoa jarduteko agindua emon eutsan.

Lan oŕi egiteaŕen, egunero 200 franco eban alogera, eta berak aitortu duanez, zuŕen eta zeatz ordaindu izan dautsez, eta atzerapen barik. Mola ta Cabanellas keneralekin ere aŕtu emonak izan ditu, eta idazkiak klabe bereziz egiten ebazan.

Emakume oŕi len ere atxilotuta egon zan, baña ordun eŕurik ez eutsen aurkitu eta, azke utzi eben lengoan.

IZPAŔKARI INGELES BAT, PAXISTAK ZEMAITUA

Londres.—Paxistak eriotza-zemaia emon eutsen "British United Press"en izpaŕkari bateri. Malaga eŕizalien mende egoala izugaŕikeriak egin ebezala zabaldu eben paxistak, eta idazle onek ingeles izpaŕingiak oŕi ez zala egia esan bai eban, eriotza zemaia oŕa eman.

Ingeles gudontzia eldu zan, ordea bera egoan urira, ta ontzi artara jo nai izan eban. Paxistak Malaga aŕtu ondoren jazo diranak ez idaztekotan, azke utzi dabe.

40 ESPIA, MADRID'EN

Mosku. — Madrid'eko izpaŕak diñoenez, espiatalde bat atxilotu dabe. Beŕogei lagun preso aŕtu dituzte.

CALACEITE'KO TXAPELOKEŔAK EPAIPE

Barcelona. — Calaceite'ko amasei txapelokeŕen kaltezko auzia amaitu zan atzo. Aldezlien aŕteko lekuko, Manuel Sales, kataluñaŕ alduna, ta Bretons, guardia nacional'eko koronela egozan.

Salatariak, guztientzat eriotza eskatu eban, eta aldezlariak, parkamena. Epaikaritza batu zan, erabakia emoteko.

Epai, salatariak eskatu ebana bera ixan zan. Eŕi-epikaritzeak, ordea, epai oŕi lar eritxi eutsan, eta betiko kartzelea emoteko eskatu.

PIRATAK, BARCELONA'N SU EGITEN

Barcelona.—Guda-zaingoan oar au emon euskuen:

"Atzo, gabeko amaŕetan, paxisten ontzi bat agertu zan kai ontarantz. Kañoi-tiro batzuk egin zituen uri ganera, ta zenbait zauritu izan genduzan

Gure kañoiak erantzun eutsen, eta be reala alde egin eban ontzi arek."

MALAGA'KO LAŔEGIKERIAK

Londres.—Gibraltar'en "Daily Herald" ek dauan izpaŕkariak Malaga'ko paxisten laŕegikeriak azaldu ditu.

Malaga paxistak aŕtu ebenean, an gertatu zan amerikaŕ gaŕatz gizon bategaz itzegin dau, ta aren esanak dira.

Beŕogetamaŕeko lagunèko pilaik alkaŕi lotuta egiten ei ditue, eta gero ametralladora tiroz garbitu.

Malaga'ko kalietan eundaka ilotz ikusi ditu. Irureun lagun kale erdian eŕo eziituen eta gero, itxasora jaurti. Emakume asko be, indaŕez estu aŕtu ei dabez.

BESTEIRO'REN ITZAK

Madrid. — Besteiro'kin bere izpaŕkariak izan dauan baŕjketaldiko itzak argitaldu ditu "La Voz" egunerokoak.

Ez dala ezeren buru ez iñongo aginŕari, esan dau. Oraingoan itz gitxi eta esan zuŕak baño ez; bestera jardutea kaltegaŕi litzakigu.

Agindariei dagokie itz egitea ta egoki danean ala ere. Besteok, jxil eta aren agindiuak beteteko gertu. Madrid bere izate jatoŕ eta jasankoŕa gero ta bikañago agertzen, sendo eta gogoŕ zaindu ta aldeztu da paxisten erasoen aure.

Egoera estu eta laŕia zanean, nik ere neure laguntasuna eskeñi neutsen lagunei, ta beaŕ-beaŕeko ez eben aŕen, lanean jardun neban.

Miaja keneralen itzak dakaz gero, Guda oin guztietan, baretsua atzoko eguna. Oi diran tiroketa bakaŕtiak baño ez.

Jarama aldean aŕi dira jendea pilatuten paxistak. Antxe eraso itzalen bat egin nai dabe, ta gizon eta tresna bildu ditue. Buŕuka diardue oraindiño ere. Paxistak eŕizalien gañen igaroteko bultzakadak egin ditue, baña ondoren onik gabe.

JARAMA'KO BUŔUKA

Mosku. — "Pravda" izpaŕkariak guda oñetik idazki auxe bialdu dau:

"Jarama inguruko buŕukaldia lengoan baizen gogoŕ. Amabost milatik 18.000 gizonera bildu zituen paxistak; mairu zaldizkakoak, bultzakari alemanak, Tercio'koak, eta abar.

Eŕizalien egazkiñen kaltez anti-aereo kañoiak ditue paxistak. Gefa asi zanetik, ez dabe olako erasoŕik jasan eŕkaldaŕak.

Eraso oŕi gogoŕ erantzunaz eutsi eutsen eŕizaleak, eta gero, euren aldetik joaldi gogoŕa egin eben, eta paxistea aldo eragin. "Heinkel" egazkin batzuk luŕera eratsi ditue eŕizaleak.

HONDURAS'EN MATXIÑADA

Managua.—Honduras'en matxinada sortu da. Matxiñada gertukizunetan bitaŕteko izan dirala ta, bi keneral atxilotu dituzte.

Beste keneral batek igesari eman zion eta nonbait eskutatua da.

Gobernuak dionez, lortu du matxiñada oŕi zati bat baretzea ta laisteŕ osoro menderatuko du.

Izpaŕak naste boŕastekoak dira.

Asaldariak mendietan lotu dira, gobernutaŕen erasoari eutsi naiaz.

NEUŔIAK-NEUŔI

Paris. — Salerosketako ministruak dionez, dana saŕtuta eunetiko ogeitamaŕez saneuŕiak jasotzea debekatzeko erabakia aitu du Frantzia'ko Gobernuak, orain aŕte jasotakoak Frantzia'ko txindi-goraberari kalte aundiak dakaŕzkiola'ta.

Saneuŕi-zaintzaile Batzordeak, auzi oŕi aztertu ta erabakitzeko alegiñak-egin egingo ditu.

Eliza ta Euzkerea

Euzkera ta Eliza, izenaz bigunak...
Ta izatez goxo goxo ta oso lagunak.

Goitik bialitako egizko ondasunak,
Maitegaŕjak ditu biotz euzkaldunak.

Alpeŕik inpernuak, Ama oŕen kaltean
Maltasuna il osai dau gure biotzean.

Betoz, betoz ekaitzak euzkaldun eŕira,
Baña ez, ez: ¿Zertarako alpeŕik badira?

Negaŕez dagoz orain Amo maite zaŕak
Euzkadi'n ikusirik ainbat seme txaŕak.

Izenez euzkaldunak, izatez zantaŕak,
Ama'ren kalterako egiten indaŕak.

Gure maitetasunen maitetasun gaŕak,
Legoŕtu beiz apur bat Ama'ren negaŕak

Asabak maite zuten Eliza ta Euzkera,
Denok goratu daigun aien izakera.

Euzkera ta Eliza, uri ta eŕietan
Maitatu beaŕ doguz... maitatu benetan.

Andonegi'taŕ Kuireka.

Ludiko ixontzirik andiña



Aiden aldiz, ingalandaŕ ixontzia, lau ... andiña da. Or beian jartzen dogunа baño, atzebi guztiagin, ¿zeŕitxazube?

Emakumeak kontu-kontari

Lau illabete paxisten menpian

Estuntza ta gogortasun ugari Ondarroa'n

Paxistak jaurtita etoŕi yakuzanok onetxek dira: 109 Ondaŕoa'tik, 2 Zestona'tik, 3 Deba'tik, 1 Donosti'tik, 1 Elgoibar'tik eta 32 Azpeitia'tik.

Azpeitia'tik etoŕi yakuzanok Uŕestila inguruan 6 gizaseme eraiI ebazala ta Donosti'ra eruan; nortzuk ziranik ez dakie.

Castilla alderuntz eruan dabez nazionalista agertzen ziran abadeak eta aruntz eruan dabezan abade oŕein ordez kanpotaŕak ekaŕi dabez. Abade batek aldeteko esan eutsonean, agindu ori nork emon eutson galdetzera juan zan eta gudalburuak ango obispo bera zala erantzun eutson. Oneitariko abade bat Miren'en jopuen kapelana zan eta beste bat Azpiatzu'taŕ Iñaki.

Iñork ez dau lanik egiten eta an miseria besterik ez dago. Jantokirik, be, ez dabe ipiñi an eta janaŕirik ez dabe emoten. Dirudunak jasi daike ta oŕitxek bizi dira ondo.

Dirutsuei ezarten dautsoez izuri edo multak eta daukon edo daukola uste daben seneko multak ezaŕi be.

⁂

Ondaŕoa'tik etoŕi diranak Ondaŕoa utsik geratuko dirala uste dabe. 2.000 gizon, be, palta dira-ta. Alkateak adierazo eutsonez 600 edo 700 sendi atarako dabez Ondaŕoa'tik; lasteŕ etoŕiko dira beste batzuk be.

Lanerako gizonik ez izatetik eta nork irabazirik be, an ez egotetik, an dagozan sendiak eŕukaŕi, miseri utsen bizi izatea ez da mira egitekoa. Dirudik, be, ez dago. Sei itxasontzitxo itxasoratuten dira orain.

Neskatila gaste bateri ulea moztu dautsoe ondo ondotik. "Rizino" iruntziarazoten, be, asi ziran, baiña "rizinorik" orain iñun, be, ez dago ta iñoŕi ezin aŕtuarazo.

Oŕen ordez erdi erdiko egin bat atataren asi ziran gaztiei. Edozein ankerkeri egiten dabe.

Irabazpiderik ez daukela ta jana eskatzen daben nazionalista ta ezkeŕtaŕei ez dautsoe janik emoten. Irabazpiderik ez ta laŕi bizi ziran abeŕtzale ta ezkeŕei arduŕea palankistak aŕtu dabela diñue.

Umiak jan egien jantokiak egin eben lenengo ta jantoki oŕetarako janariak ukazanari kentzen eutsezan batzuetan eta este batzuetan euren arerio diranei kenuriko multekin erosten ebezan janariok. Multa askoŕik ezin ezaŕi orain, diruak astatu ziran eta. Azkenengo izuri edo multok Ondaŕoa'tik jaurti dabezanoi ipiñi utsoez abeŕi areriok zirala-ta.

"Flechas" taldeetan bazkidetuten dabez st urtetik gorako umiok.

Ondaŕoa'ko alkatea Santxez Okaña dexona da.

Ondaŕoa'tik etoŕi yakuzanon aŕtean 97 teko atso bat, be, bada. Beŕidi'taŕ Austine da emakumeoi. Iru ilabeteko umexo bat eta 15 eguneko beste seintxo bat be, etoŕi dira. Amabost eguneko umetxu oneŕi Alfonso Carlos izena ipiñi eutsen, beaŕtuta.

Euzkel-izenak jaiobaŕiei ipintea galerazoten dauan agindu bat emon dabe. Ipiñi eikiuenentz galdetu eutson txanburuak Perez Ormazabal kanoniguari ta onek umeei edozein izen ipiñi eikiuela erantzun eutson len eguan letz. Gudaŕi Agintariak galerazoten dabe baiña ta euzkel-izena ipiñita Epaikaritza edo Juzgadura eruaten ba da, gurasuei multea leporatzen dautsoe.

Goma'ren idazti edo karta bat irakuŕi dabe pulpitotik edo txonitztokitik. Katoliko guztiak asaldariei laguntzera beaŕtuta dagozala ta laguntzen ez dautsenak kistaŕ areriuak eta goŕien lagunak dirala esaten da idazti oŕetan.

Bakaldun edo eŕege-zaleen ikuŕak eruan beaŕ dabez guztiak. Ikuŕ ori bage kaleratzen danari 25 laurlekoko izuri edo multa leporatzen dautsoe.

Edozein ordutan nai eguŕez nai gabaz aztertzen dabez etxeak txapel okeŕen-bitaŕtez. Zalataritan asko be, asko dago.

Edozein jaitan eŕegaleen leio zapiak ipintera beaŕtuten dabez; leio-zapiok guztiak euki beaŕa dabe.

Arpideak edonoz aston dabez ta danak emon beaŕ guztiak. "Caza leones" ta "Chaquetas blancas" palankistaraldeak edozer lotsagaldukeri egiten dabe.

Gudariak dirurik ez dautsoela emoten eta asaŕe dira. Diru pilu aundiak dautsez zoŕ. Multen-bidez lortu ebezan diruekin 25 laurleko emon eutsezan oraintsu.

Asko atxilotu dabez. Urtzelai'taŕ Gotzon'eri 5.000 laurlekoko izuria leporatu eutsen eta Iruña'ra eruan; andik Zarautz'era ekaŕi eben gero.

Ondaŕoa'ko sei emakume dagoz Donostia'n atxilotuta ta beste zaspi Cruz Roja'ko etxean gaixorik dagoz-ta.

(Igandeko zenbakitik atzeratua.)

Ludiko ixontzirik txikiña

Aldermen J. T. Porters jaunak, bere urte biko lanaren buruz, jostatzeko ixontzia asmua ta egin dau. Ixontziño onek, aundi bat bai-litzan dauz bere bulzkin ta enparau tramankulu gustiak. Eta argazki onetan ikusi daikezuben lez, bere ind aŕtxuba dau, ba, bere egilia ta beste gixona gantan daruazan batela, eŕez-eŕez erabili oi-dauz.

Uskurtza eta azkatusuna

Uskurtzaleak garanok, jakintzak agintzen deuskulako gara. Uskurtza Jakintzaren zati bat baño ez da. Beaŕ dan lez uskurtzale dana, egiz jakintsua da. Jakintsua, baŕiz, Jakintzagaz ondo alkaŕtzen da.

Jakintsu askok baña uskurtza oinperatu egiten dabe. Zergatik ete? Uskurtzak lotu egiten ei dau gixona; geure adimenaren jabe egiten ei da, eta uskurtzaleak azkatasunik be ez ei dau.

Irakuŕle, baña ¿geuk gura doguna al da egija bakaŕik? ¿Buruaren gañetik al dogu bijotza? Ez orixe, ez

Nik eneuke gatxik gura ludijan. Nire eskuan ba lego, gaxua eta gaxotegija zertzuk diran, iñork be eleuke jakingo. Osasunian eta bakian bixi gura neuke. Eta nik lez auzoko ama semiak be. ¿Il gura al dozu? Ez, e? Guk gura ez aŕen baña gaitza eta eriotzia geugaz doguz. Guk gura ez doguzan egi asko dira. Egija, baña, beti egi.

¿Uskurtzak azkatasuna kentzen daula?

Lutelesti edo Geografia'n, Mosku Eŕusia'n, Londres Ingelanda'n, Madrid Espaiña'n eta Donosti Euzkadi'n dagozala ikasiko zebazan.

Himalava nun dagon be badakixu: bai Danubio be.

Gauza oneitzaz itauntzen ba deutzut, beti bardin erantzungo deustazu. Egi oneik zeure buruaren jabe egin dira, eta gura edo ez, Palestina Asia'n dagoala eta Ernio Euzkadi'n esango dozu.

Zenbakizti gauzetan be, etzerala atzeratua uste dot. Bi ta bi, lau... Ogeiri amaŕ kendu... eta amaŕ. ¡Oŕa, zenbakistiak zu re adimenian egi batzuk jaŕi dauz. Zuk eta nik askotan lau ta lau amabost ixatia gura geunke...; arpegi iluna jaŕi aŕen baña, gu bijontzat lau eta lau zortzi

Biaŕ ba da ezintzan Jakintzizti edo Filosofi'ko ikastoletan saŕtuko. Bestela au entzuna ixango zara: "Batera zurija eta baltza danik ezin leike." Oñaŕi au barik "Filosofi"rik ez dago. Esaera on bide, egi galantak etoŕtzen dira gure adimenera, jabe egiñaz gañera.

Oŕa ba, irakuŕle. Lutelesti zaleak, ez dau Lutelesti gajetan azkatasunik. Nai ta nai ez, Euzkadi Europa'n jaŕi biaŕ dau. Zenbakiztietan... bi eta bi, lau. Gura edo ez, "Filosofiak" bardin. Egijak beti egi. Zenbat eta jakintsuago, azkatasun gitxiago.

Jakintza guztijetako gaiak oro dakijazan gixon bat jaŕi daigun. Oŕen adimena alde gustijetatik loturik dago; ez dau azkatasunik.

Azke azke bai al dakizu nor bixi dan? Ezer be ez dakiana. Txindiz beteriko zakel batek, geiago aŕtzeko azkatasunik ez dau; utsa ba-dago bai... Oŕatio baña, bardiñak ez dira azkatasun bako zakel betea, eta azkatasunez beteriko (?) utsa...

Ni Jakintzak agintzen deustalako naz uskurtzalea. Jakintzak. Adimen bat. Zuzentzale bat. Jaungoiko bat ba'dala irakasten deusk. Eta egi au ezin ukatu.

Uskurtzak kentzen dauan azkatasuna, jakintza orok kentzen dabena da.

Oartu baña, irakuŕle. Azkatasuna ainbeste maŕe eta uskurtzaleak ez diranak, gu baño lotuago dira. Masoiak, ango, edo emengo alderdikideak dirala, eta ango edo emengo guzuŕak siñetsi eta aginduak be biaŕ. Uskurtzaren aŕija eten, eta kate gogoŕakaz lotzen dabez euren buruak.

Nik neuk gurago dot uskurtzaren jausi goikozko maŕasun goxua, gixonaren lokaŕi gogoŕa baño.

LAŔEA'TAŔ JON

(A.'taŕ Iki'ri aŕtua eta bizkaieratua.)

KIROLAK

"Euzkadi" egazkin - alde "Euskalduna" pelota - tokian

Pelota-tokia bete-beterik.-Onaindia, ederto!! Abrego'ren zartadak.-Pasai kirio, utz.-Gure "Basarri" giroko.



Igandez, Euskalduna pelota-tokian Euzkadi egazkiñaren aldez jokatu ziran jokaldietara, eurez eldu zan jentia. Ofa of, gonbururaño beterik.

Igazitako egunetan, erañegun "Euskalduna'n ain aundikiro ospatu zan jaialdia iragartzeari lotu genion geure idazkortza. Igarle izatea ez zan gaitza baiña, igafi egin gendun. Pelota tokia pelotazalez bete-beterik. Pelotariak ezin egokiago. Gure "Basafi" bertzolaria giroko. Edefki! Ezin edefkiago.

